

## Funtsezko elkarteak

Argi dago enpresa batek funtsezko elkarte batzuk izan behar dituela, bere proiektua aurrera eraman ahal izateko. Beste enpresa edo entitate batzuekin harremanak izateak, saltzeko erraztasuna, merkatuan konpententziak saihesteko aukerak, edo ekoizpen baliabideak merkeago eskuratzeko aukera eman ditzake. Arrazoi hauen ondorioz gure proiektua aurrera eramateko enpresa askorekin hitz egitea komeni zaigu, eta ondorengo enpresa hauetan pentsatu dugu:



- **Preslan:** Ugle eskolako ikasleek bertan lan egiten dute, armairu elektrikoak ekoitziz. Gure produktuaren piezak ekoiztea eskainiko diogu Preslani. Adostasun batera iritsiko bagina, beraiek gure produktuaren piezak ekoitziko lituzkete, honek suposatzen du guk piezak ekoitziko bagenitu, kostu gehiago izango genituela. Horrez gain bertako enpresekin lan egiteak jendeari erakarri egingo dio.



- **Entitate publikoak:** ezinbestekoak izango dira gure salmentak handitzeko. Adostasun batera iristea beharrezkoa izango da, hasiera batean merkatuan sartzeko.



- **Erakunde ekologikoak:** Oso laguntza ona izan daiteke erakunde ekologiko batekin harremanetan egotea, publizitate kanpainak izateko.

**GREENPEACE**